**IKASTURTEA** 2024-2025 **2. SEIHILEKOA**
CURSO 2024-2025 2.° SEMESTRE



# Kultur Aisia Unibertsitatean

# Ocio Cultural Universitario

BASAURI

DeustoBide
Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea

# Aurkezpena

**Kultur Aisia Unibertsitatean** programa 1993an jarri zen martxan, inguruan aisia humanista sustatzeko, prestakuntza aisia mota bat zela eta garapen pertsonal eta sozialerako zela defenditzeko. Harrezkero, gure programa honen asmoa izan da kultura-mugak zabaltzea, balioak zein diren aztertzea eta pertsona moduan hazteko bide berriak urratzea, aisia arloan parte hartzen duten guztientzat.

**Kultur Aisia Unibertsitatean** prestakuntza programa irekia da, kulturagatiko kezka sentitzen duten guztientzat, adina edozein dela ere, eta aurretiazko titulurik behar izan gabe.

**Kultur Aisia Unibertsitatean** programak hamabost orduko iraupena duten ikastaroak eskaintzen ditu gaur egun, era guztietako gaien ingurukoak: artean, literaturan, historian, filosofian, osasunean, musikan eta kulturan eta gizartean interesa sortzen duten beste arlo batzuetakoak.

DeustoBide - Herritartasun Eskola
Deustuko Unibertsitatea

# Presentación

El Programa **Ocio Cultural Universitario** se pone en marcha en 1993 con la finalidad de promover un ocio humanista en el entorno, defendiendo la idea de la formación como ocio y de éste como desarrollo personal y social. Desde entonces este programa se ha propuesto ampliar el horizonte cultural, descubrir valores y buscar en el ocio nuevos cauces de realización personal para aquellos ciudadanos y ciudadanas que en él participan.

**Ocio Cultural Universitario** es un programa de formación abierto, dirigido a toda persona con inquietud cultural, de cualquier edad y sin la exigencia de un título previo.

**Ocio Cultural Universitario** ofrece en la actualidad cursos de quince horas de duración que abarcan una gran diversidad de temas en las áreas de arte, literatura, historia, filosofía, salud, música u otros ámbitos de interés cultural y social.

DeustoBide - Escuela de Ciudadanía
Universidad de Deusto

# 2024/2025 bigarren seihilekoko ikastaroak

## Goi Errenazimentuko artea: Cinquecento europarreko maisuak

### Irakaslea: Nerea Ayerbe

*Deustuko Unibertsitateko Gizarte eta Giza Zientzietako doktorea eta Giza Zientziak - Enpresako lizentziatua. Artearen merkatuko eta horrekin lotutako enpresen kudeaketako Masterra egin zuen Madrilgo Antonio de Nebrija Unibertsitatean. Hainbat kultura erakundetan esperientzia izan ondoren (Sprovieri Gallery-n, Londresen; Consonni arte produktorean edo Conexiones improbables aholkularitza kulturalean), gaur egun Bilboko Azkuna Zentroan dihardu. Gainera, hainbat ikerketa proiektutan, artearen irakaskuntzan, komisariotzan eta artearen kritikan ere aritzen da.*

Kapera Sixtinoaren ganga edo Michelangeloren David, Leonardoren Gioconda edo San Joan Bataiatzailea, Rafaelen Vatikanoko Gelak edo Antzaldaketa: XVI. mendeko lehenengo hamarkadek parerik gabeko eztanda ekarri zuten pinturan eta eskulturan. Oraindik ere liluratu egiten gaituzte. Irakasgai honek Goi Errenazimentuko artea ezagutzeko gonbidapena egiten digu, diziplina eta izenik nabarmenenak gogoan harturik. Arte italiarra ez ezik, arte europarra ere ikusiko dugu, geografia zabala hartuta: jakina, Rafael, Michelangelo edo Leonardo da Vinciren Italia aztertuko dugu, haien ondorengoak garai manieristan, baita beste latitude batzuetakoak ere: Dureroren Alemania, El Boscoren Herbehereak, baita El Grecoren espainiar eskola ere. Pil-pilean eta lehia bizian zeuden kultura-guneen sareak, loriaren egarri ziren mezenas handinahiek, eta ausardi handiz beren lengoaia berrasmatzeko gai izan ziren sortzaileek oraindik ere argitzen gaituen artea munduratu zuten.

**Ordutegia:**
Astelehenetan, 17:00etatik 18:30era

**Egutegia:**
Martxoak 3, 10, 17, 24 eta 31;
Apirilak 7 eta 28;
Maiatzak 5, 12 eta 19.

**Hizkuntza:**
Gaztelania

## Hollywoodeko zinema klasikoko 5 zuzendari handiren azterketa

### Irakaslea: Jorge Barrio

*Zinemako irakaslea 2001az geroztik. Gaur egun Begira Elkartean dihardu, Ikus-entzunezkoetan trebatzeko eskolan irakasten Lanbiderentzat, hiruhilean behingo zinema ikastaroa ematen Gasteizeko Udalarentzat (2013tik hona), baita DeustoBiderentzat iaztik hona. Duela urte batzuk Kinema Zinema Eskola sortu zuen Deustun, eta han ere eskolak eman zituen. Imval eta ECPVko irakasle ere izan da. Zinegilea da: «La Tercera Ley de Newton» filma Filminen ikus daiteke. Fas zine-klubeko idazkaritza eta komunikazioa daramatza.*

Ikastaro honetan, Hollywoodeko garai klasikoko 5 zinema-zuzendari handiren filmografia sakon aztertuko dugu: Howard Hawks (*Scarface, La fiera de mi niña, Rio Bravo*), King Vidor (*El gran desfile, Stella Dallas, El manantial*), Frank Capra (*Qué bello es vivir, Vive como quieras, Juan Nadie*), George Cukor (*Historias de Philadelphia, Luz que agoniza, My Fair Lady*) eta Fritz Lang (*M, el Vampiro de Düsseldorf, Metrópolis, Furia*) zuzendariena. Haien titulu garrantzitsuenetan oinarrituta, gai nagusiak eta denboran zehar izan duten bilakaera zehazten saiatuko gara. Horren ondoren, eduki horiek ilustratzeko hizkuntza zinematografikoaren berariazko erabilera aztertuko dugu. Garai berean bizi izan baziren ere, bakoitzak oso gai desberdinak ukitzen zituen: profesionaltasuna, adiskidetasuna, masa gizartea, zintzotasuna, bizitzaren antzerkia edo gaizkia. Analista/irakasle gisa izan duen esperientziak zinemagile horien lanei buruzko ezagutza sakona eman dio.

**Ordutegia:**
Asteazkenetan, 17:00etatik 18:30era

**Egutegia:**
Martxoak 5, 12, 19 eta 26;
Apirilak 2, 9 eta 30;
Maiatzak 7, 14 eta 21.

**Hizkuntza:**
Gaztelania

# Cursos del
# segundo semestre 2024/2025

## Arte en el Alto Renacimiento: maestros del Cinquecento europeo

**Profesora: Nerea Ayerbe**

*Doctora en Ciencias Sociales y Humanas y Licenciada en Humanidades y Empresa por la Universidad de Deusto. Así mismo cursó el Máster de Mercado de Arte y Gestión de Empresas Relacionadas en la Universidad Antonio de Nebrija de Madrid. Tras su experiencia profesional en diferentes organizaciones culturales, como Sprovieri Gallery en Londres, la productora de arte Consonni o la consultora cultural Conexiones improbables, actualmente desarrolla su carrera en Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao. Además, está involucrada en varios proyectos de investigación, docencia en arte, comisariado y crítica de arte.*

La bóveda de la Capilla Sixtina o el David de Miguel Ángel, la Gioconda o el San Juan Bautista de Leonardo, las Estancias Vaticanas o la Transfiguración de Rafael: las primeras décadas del s. XVI conocieron un estallido sin igual de la pintura y la escultura que aún nos fascina. Esta asignatura invita a recorrer el arte del Alto Renacimiento en sus variadas disciplinas creativas y en sus nombres más destacados. No solo el arte italiano, es el arte europeo en sus muy diferentes geografías el que se recorrerá aquí: por supuesto, exploraremos la Italia de Rafael, Miguel Ángel o Leonardo da Vinci y sus descendientes en el periodo manierista, pero también otras latitudes, como la Alemania de Durero o los Países Bajos de El Bosco, sin olvidar a la escuela española con El Greco. Un entramado de vibrantes centros culturales en feroz competencia, ambiciosos mecenas sedientos de gloria y creadores capaces de reinventar su lenguaje con audacia alumbraron un arte que no deja de iluminarnos con su poderosa presencia.

**Horario:**
Lunes, de 17:00 a 18:30

**Calendario:**
Marzo: 3, 10, 17, 24 y 31;
Abril: 7 y 28;
Mayo: 5, 12 y 19.

**Idioma:**
Castellano

## Estudio de 5 Grandes Directores de Cine Clásico de Hollywood

**Profesor: Jorge Barrio**

*Profesor de cine desde 2001. Actualmente imparto curso en la Escuela de Captación Audiovisual (Begira Elkartea) para Lanbide, curso de cine trimestral para el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (desde 2013) y también para Deustobide desde el curso pasado. Hace años fundé Kinema Escuela de Cine en Deusto, donde también impartí clases. También he sido profesor en Imval y la ECPV. Soy cineasta, mi película «La Tercera Ley de Newton» se puede ver en Filmin. Llevo la secretaría y comunicación del Cineclub Fas.*

En este curso estudiaremos en profundidad la filmografía de 5 grandes directores de cine de la época clásica de Hollywood: Howard Hawks (*Scarface, La fiera de mi niña, Rio Bravo*), King Vidor (*El gran desfile, Stella Dallas, El manantial*), Frank Capra (*Qué bello es vivir, Vive como quieras, Juan Nadie*), George Cukor (*Historias de Philadelphia, Luz que agoniza, My Fair Lady*) y Fritz Lang (*M, el Vampiro de Düsseldorf, Metrópolis, Furia*). En base a sus títulos más importantes intentaremos establecer sus temáticas más principales y su evolución a través del tiempo. Tras eso analizaremos la específica utilización del lenguaje cinematográfico como medio expresivo para ilustrar esos contenidos. Aun conviviendo en una misma época, cada uno tocaba temas muy distintos entre sí, desde el la profesionalidad, la amistad, la sociedad de masas, la integridad, el teatro de la vida, o el mal. Mi experiencia como analista/profesor me concede un profundo conocimiento sobre sus obras.

**Horario:**
Miércoles, de 17:00 a 18:30

**Calendario:**
Marzo: 5, 12, 19 y 26;
Abril: 2, 9 y 30;
Mayo: 7, 14 y 21.

**Idioma:**
Castellano

# Izena emateko prozedura BERRIA

**Izena emateko epea: otsailaren 3tik 16ra**

Plaza kopurua mugatua da (gehienez, 63 pertsona), eta lehentasuna izango dute Basaurin erroldatuta daudenek. Ikastaroran 63 eskabide baino gehiago badaude, zozketa egingo da **otsailaren 19an**, eta, onartuak izan zein ez, posta elektronikoz jakinaraziko zaie interesdunei. Zozketaren emaitzekin itxaron-zerrenda egingo da plazarik lortu ez dutenekin.

Ez da inolako ezeztapenik onartuko.

**Ikastaro bakoitzean, gutxienez 45 parte-hartzaile** beharko dira taldea sortzeko. Hala ez bada, Basauriko Udaleko Kultura Sailak beretzat gordetzen du ikastaroren bat bertan behera utzi ahal izateko eskubidea.

**Izen-ematea elektronikoki izango da.** Horretarako, www.basauri.eus webgunean online inprimakia egongo da eskura. Jarraitu beharreko pausuak:

1) Aipatutako inprimakia bete baino lehen, **ordainketa egin behar duzu** autolikidazio sistemaren bidez Zerga Bulego Birtualean. Bulego Birtualera sartzeko, baimendutako sistemekin identifikatu behar zara (BAK, BAKQ, ziurtagiri elektronikoa), eta autolikidazioen atalean sartu. Hemen, «Likidazio berria sortu» aukera hautatu behar da, **eta Autolikidazioa estekan sartu**: «PPCOP - PRECIO PUBLICO CURSOS OCIOBIDE».
   Bi kurtsoetan inskribatu bazara, bitan aukeratu beharko duzu tarifa. Adibidez: bi kurtsoetara joango bazara, honako hauek ordaindu beharko dituzu:
   — 1. kurtsoari dagokion tarifa (astelehena): 42,00 €
   — 2. kurtsoari dagokion tarifa (asteazkena): 42,00 €
   **Ordaindu beharrekoa, guztira: 84,00 €**
2) Ordainketa egin ondoren, inskripzioarekin jarraitu beharko duzu.
   Zure datu pertsonalak sartu beharko dituzu eta zein kurtsotan inskribatzen zaren adierazi beharko duzu.
3) Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren klausula onartu beharko duzu.
4) Ordainagiria erantsi beharko duzu.
5) Azkenik, laburpena agertuko da inskripzioari buruzko informazio guztiarekin. Gomendagarria da laburpen hori inprimatzea/gordetzea, egiaztagiri gisa. Ez ahaztu **«Amaitu»** botoia sakatzea prozesua amaitzeko eta zure eskaera gordetzeko.
6) Inskripzioa egin ondoren, kurtsoren batetik kanpo geratu bazara plazen kopurua gainditu delako (63 plaza), dagokion diru-itzulketa egingo zaizu.
7) Behin inskripzioa eginda, ez da inolako ezeztapenik onartuko, ez bada salbu **parte-hartzaileak istripuren bat izan badu edo gaixorik badago, eta betiere mediku agiriz justifikatuta**.

**Ziurtagiri digitalik ez baduzu**, Basauriko Udalaren beheko solairuan eta San Migelen (Pagasarri kalean) dauden herritarren arretarako bulegoetan —HAZ— eman dezakezu izena. Kasu horretan, **banku-txartelarekin** joan beharko duzu ordainketa egiteko.

**Aldez aurretik hitzordua** eskatu beharko da, 94.466.63.00 telefonoaren bidez edo Herritarrentzako Arreta Bulegoen —HAZ— irteeran instalatutako makina automatikoen bidez edo esteka honetan: https://sede.basauri.eus/es/citaprevia.

## Prezioa

**42 euro** kurtso bakoitzeko.

## Argibide gehiagorako, deitu telefono hauetara:

**944 66 63 11** (Basauriko Udala) – **944 13 90 75** (Deustuko Unibertsitatea)

## Ikastaroen egoitza

Basozelai Gizarte Etxea
Basozelai, 11 - 48970 Basauri

# NUEVO Procedimiento de inscripción

**Plazo de inscripción: del 3 al 16 de febrero.**

El número de plazas es limitado (máximo 63), y tienen preferencia los empadronados en Basauri. En el caso de que el número de inscritos sea superior a 63, se realizará un sorteo el día **19 de febrero**, de cuyo resultado, sea positivo o negativo, informaremos por e-mail. Del resultado del sorteo se obtendrá una lista de espera con aquellas personas que no hayan obtenido plaza.

No se admitirán renuncias.

En **cada curso** será necesario como **mínimo 45 participantes** para la creación del grupo. De no ser así, el Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Basauri se reserva el derecho de poder cancelar alguno de los cursos.

**La inscripción se realizará on-line**. En la página www.basauri.eus, se habilitará un formulario online preparado al efecto. Pasos a seguir:

1) Antes de rellenar dicho formulario deberá **efectuarse el pago** mediante el sistema de autoliquidación desde la Oficina Virtual Tributaria.
   Para acceder a la Oficina Virtual el solicitante debe identificarse con los sistemas permitidos (BAK, BAKQ, certificado electrónico) y acceder al apartado de autoliquidaciones, aquí deberá seleccionar la opción «Crear Nueva liquidación», y acceder al enlace Autoliquidación para el tipo de ingreso: «PPCOP - PRECIO PUBLICO CURSOS OCIOBIDE».
   En caso de que se inscriba en los dos cursos, tendrá que elegir dos veces la tarifa. Por ejemplo: si usted va a asistir a los dos cursos, deberá abonar:
   — Tarifa correspondiente al 1.er curso (lunes): 42,00 €
   — Tarifa correspondiente al 2.º curso (miércoles): 42,00 €
   **Total a abonar: 84,00 €**
2) Una vez realizado el pago deberá continuar con la inscripción. Tendrá que introducir sus datos personales e indicar los cursos en los que se inscribe.
3) Deberá aceptar la cláusula de la RGPD (Reglamento General de Protección de Datos).
4) Tendrá que adjuntar el recibo del pago.
5) Por último aparecerá el resumen con toda la información de la inscripción, se recomienda imprimir/guardar dicho resumen a modo de justificante. No olvide pulsar el botón **«Terminar»** para finalizar el proceso y guardar su petición
6) Si después de realizar la inscripción, se queda fuera de algún curso por rebasarse el límite de 63 plazas por curso, se le girará la devolución correspondiente.
7) Una vez realizada la inscripción **no se admitirá ningún tipo de cancelación**, salvo supuesto de enfermedad o accidente de los participantes justificados medicamente.

**Si no dispone de certificado digital,** podrá realizar la inscripción en las oficinas de atención ciudadana —SAC— situadas en la planta baja del Ayuntamiento de Basauri y en San Miguel (Calle Pagasarri). En este caso deberá acudir con **tarjeta bancaria** para realizar el pago.
Será necesario solicitar **cita previa**, la cual se podrá solicitar a través del teléfono 94.466.63.00 o mediante las máquinas expendedoras que se han instalado a la salida de las Oficinas de atención ciudadana —SAC— o en el siguiente enlace: https://sede.basauri.eus/es/citaprevia.

## Precio

42 euros por curso

## Para más información llamar a los teléfonos:

**944 66 63 11** (Ayuntamiento de Basauri) – **944 13 90 75** (Universidad de Deusto)

## Lugar de realización de los cursos

Centro Cívico Basozelai
Basozelai, 11 - 48970 Basauri

Colabora:

Fundación "la Caixa"

Deusto
Facultad de Ciencias Sociales y Humanas
Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea




**DeustoBide**

Herritartasun Eskola
Escuela de Ciudadanía

Avda. de las Universidades, 24
48007 Bilbao

**944 139 075**
(Universidad de Deusto)

**944 666 311**
(Ayuntamiento de Basauri)

deustobide@deusto.es

www.deusto.es/deustobide